

Fénix Directo

## Fénix Moto aseguruetarako aurretiazko informazio oharra

[www.fenixdirecto.com](http://www.fenixdirecto.com)

### Aseguratzaila eta banatzailea

**FÉNIX DIRECTO, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.** Konpainia horren sozietate helbidea: C/ Ramírez de Arellano, 35, 28043 Madril. IFZ: A-80029150. Espainiako erakunde bat da, eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioako Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak arautzen du. Aseguru Erakundearen Erregistroan dago inskribatuta, C0706 zenbakiarekin. Era berean, ez du merkaturatutako produktu honi buruzko aholkularitzarik eskaintzen, eta aseguru etxearen kontura eta haren izenean jarduten du. Azkenik, banatzaile honek soldata finkoa jasotzen du, eta aseguru honen banaketagatik kopuru aldakor bat jaso dezake.

### Prezioa

**XXX€**

Zenbateko hori bezeroak emandako datuetan oinarrituta zehaztu da, egin zen egunean indarrean zeuden tarifen arabera. Baldintzatzat du adierazitako datu guztiak mantentzea eta Konpainiak kontrastatzea; beraz, ez da loteslea Konpainiarentzat.

### Informazio hau zein epetarako den baliozkoa

Informazio hau zure aseguru orain kontratatzen baduzu bakarrik da baliozkoa.

### Atzera egiteko eskubidea

Aseguru kontratua urrutitik sinatzen bada, eta nahitaezko aseguru denez, aseguru-hartzaileak ez du atzera egiteko eskubiderik.

### Informazioa aurkezteko hizkuntza edo hizkuntzak

Informazio hau gaztelaniaz eta edozein hizkuntza koofizialetan dago eskuragarri.

### Aplikatu beharreko legeria, eta gatazkarik izaneko zein jurisdikziotara jo behar den

Aseguru poliza hau ondorengo hauen mende dago: 50/1980 Legea, aseguru kontratuari buruzkoa; 20/2015 Legea, 2015eko uztailaren 14koa, aseguru eta berraseguru erakundearen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa; 1060/2015 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, aseguru eta berraseguru erakundearen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa; 7/2004 Legegintzako Errege Dekretua, 2004ko urriaren 29koa, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testuategina onartzen duena; 22/2007 Legea, 2007ko uztailaren 11koa, kontsumitzaileentzako finantza zerbitzuak urrutitik merkaturatzeari buruzkoa; aseguru pribatuen banaketari buruzko araudia eta eta gertatzen diren haien egokitzapenak, eta haien erregelamenduzko xedapenak; bai eta indarrean dagoen bitartean aplikatu beharreko beste edozein legeria ere.

Jurisdikzioa: **aseguratuaren helbidea.**

**FÉNIX DIRECTO**

## Erreklamazio instantziak

### Bezeroen Defentsarako Departamentua:

Legez aitortutako zure eskubide eta interesei buruzko edozein kexa edo erreklamazio egiteko, konpainiarengana jo dezakezu, finantza erakundeen bezeroen arretarako sail eta zerbitzuen eta bezeroen defendatzailearen 2004ko martxoaren 11ko ECO 734/2004 Aginduarekin bat etorritik, honako bide hauek baliatuz: C/ Ramírez de Arellano, 35, 28043 Madril - Apartado de correos n.º 38, 08080 Bartzelona / e-mail: ddc@allianz.es / <https://www.fenixdirecto.com/> / Faxe: 93 228 85 53 / Konpainiak jendearentzat zabalik duen edozein bulegotan ere.

Webgunean eta konpainiak jendearentzat zabalik dituen bulegoetan eskuragarri duzun arautegiari jarraituz, kexa edo erreklamazioa gehienez hilabeteko epean ebartziko da. Bezeroen Defentsarako Departamentuan aurkezten den egunetik hasiko da epe hori.

Kexa edo erreklamazioa onartzea ukatzen badizute, eskaera osorik edo zati batean ezesten badizute, edo Bezeroen Defentsarako Departamentuan aurkeztu zenuenetik bi hilabeteko epea igarota oraindik ebazti ez bada, kexa edo erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko Erreklamazio Zerbitzuan (helbidea: Paseo de la Castellana, 44, 28046 Madril).

## Bezeroaren eskakizunak eta beharrak

Kontratazioaren aurretik bezeroak emandako informazioa aztertu ondoren, aseguru agenteak adierazi du produktu honek haren eskakizunak eta beharrak betetzen dituela.

Soilik orain zure aseguruia kontratatzen baduzu da baliozkoa sustapen hau.

Finantza eta kaudimen egoerari buruzko txostena kontsultatzeko: <https://www.fenixdirecto.com/es/fenix-directo/quienes-somos>

Dokumentu honek ez du kontratu baliorik. Aseguratua babesteko alde aurreko informazio eskakizunak betetzeko baino ez da ematen; eta, horregatik, primaren behin betiko prezioa dagozkion egiaztapenak egin ondoren ezarriko da.

Bezero potentzialak onartzen du aseguruia kontratatu aurreko informazio orokorra webgune honen bidez ematea: <https://www.fenixdirecto.com/es/area-clientes-fenix-directo/ecliente>. Konpainiak bermatzen du informazio hori webgune horretan jasota egongo dela urtebetez.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
<b>Arduraduna</b>	FÉNIX DIRECTO, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.
<b>Helburua</b>	Aseguruia kontratatzea, mantentzea, garatzea eta kontrolatzea.
<b>Legitimazioa</b>	Kontratu bat gauzatzea.
<b>Hartzailleak</b>	Konpainiako hirugarren laguntzaileei eta aseguru sektoreko fitxategi komunei lagatzea. Talde barruko nazioarteko transferentziak.
<b>Eskubideak</b>	Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta eramatea; datuen tratamendua mugatzea edo tratamenduaren aurka egitea, informazio gehigarrian jasotako jarraibideei jarraituz.
<b>Jatorria</b>	Interesduna.
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <a href="https://www.fenixdirecto.com/es/proteccion-de-datos">https://www.fenixdirecto.com/es/proteccion-de-datos</a>

